

AMAIERAKO BANAKAKO LANA EBALUATZEKO ERRUBRIKA

ALDERDIAK	4 BIKAIN	3 ONGI	2 HOBETU DAITEKE	1 GUTXI
Paisaia interpretatzea	Behar bezala interpretatzen ditu paisaiak. Egiturak ondo deskribatzen ditu eta eraketa-prozesuekin lotzen ditu.	Behar bezala interpretatzen ditu paisaiak. Egiturak ondo deskribatzen ditu eta eraketa-prozesuekin lotzen ditu % 80an.	Behar bezala interpretatzen ditu paisaiak. Egiturak ondo deskribatzen ditu eta eraketa-prozesuekin lotzen ditu % 60an.	Behar bezala interpretatzen ditu paisaiak. Egiturak ondo deskribatzen ditu eta eraketa-prozesuekin lotzen ditu % 20an.
Erantzunen zehaztasuna eta koherentzia	Oso ondo ebazten ditu planteatutako gaiak, terminologia zientifikoa zuzen eta koherentziaz erabilia.	Ondo ebazten ditu planteatutako gaiak, terminologia zientifikoa zuzen erabilia, baina egitura edota prozesu batzuk ez ditu erabat azaltzen.	Planteatuko gaiak ebazten ditu, termino zientifiko batzuk zuzen erabiltzen ditu, baina prozesu batzuk oso azaletik baino ez ditu azaltzen.	Ez ditu ondo ebazten planteatutako gaiak, terminologia zientifikoa azaletik baino ez du erabiltzen eta ez du prozesuetako bat bera ere aipatzen.
Gizakiak ingurumenean duen inpaktuari buruzko hausnarketa	Zuzen aztertzen du giza ekintza batzuek paisaian duten ingurumen-inpaktua, eta haren garrantzia azpimarratu eta adibideak jartzen ditu.	Zuzen aztertzen du giza ekintza batzuek paisaian duten ingurumen-inpaktua, eta haren garrantzia azpimarratzen du.	Azaletik aztertzen du giza ekintza batzuek paisaian duten ingurumen-inpaktua.	Ez du zuzen aztertzen giza ekintza batzuek paisaian duten ingurumen-inpaktua; ez du haren garrantzia azpimarratzen eta ez du adibiderik jartzen.

